

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Landa eta hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga erroldak kobratzea. 2018ko ekitaldia

Urriaren 26a eta abenduaren 26a bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, hiri eta landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren aurtengo ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epeak

Borondatezko epea: 2018ko urriaren 26tik abenduaren 26ra.

B) Betearazte aldia: 2018ko abenduaren 27tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu behar dira, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, adierazitako epeetan.

– 2018ko urriaren 26tik abenduaren 26ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, hiri ondasun higiezinaren gaineko zergaren aurtengo ordainagiriak.

II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa. Helbideratutako ordainagiriak, landa ordainagiriak badira, azaroaren 2an kobratuko dira eta abenduaren 3an hiri ordainagiriak badira.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenek, udalean eskatu ahal izango dute helbideratzea, edota diru sarrera egin Banco Popular edo Kutxabank finantza erakundeetan udalak dauzkan dirubilketa kontuetan.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako zergen Foru Arau orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Alkatetzan, ordaintzeko borondatezko epean, edo hilabeteko epean, hura amaitu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Lapuebla de Labarca, 2018ko urriaren 8a

Alkatea

MAIDER MURILLO TREVIÑO